



## ■ INMAKULADA

### Santo Tomas ospatuko dute gaur

Gabonetako jaialdia izan zuten atzo Inmakuladako neska mutilek. Gaur, Santo Tomas ospatuko dute. Barazki eta fruituen feria jarriko dute; eta txistorra postua ere, izango da, talo eta bokatekin. ■

## ■ GABONAK

### Gabon kanten jaialdia, gaur

Herriko zazpi abesbatzek Gabon kanten abestuko dituzte gaur San Joan Bataiatzailean, 20:00etan hasita. ■

## ■ URTEKARIA

### Aurkezpena, gaur

2014ko urtekaria gaur aurkeztuko dute, Udaleko areto nagusian, 18:00etan. ■

## ■ BERTSOLATA

### Bertso musikatuak Gaztetxean, gaur

Bertso musikatu jaialdia antolatuko dute Gaztetxean gaur, 20:00etan hasita. ■

## ■ ZINEA

### 'Fuego', gaur

Fuego pelikula ikusteko aukera izango da gaur Biterin, 22:30etan hasita. ■

## ■ PRESO ETA IHESLARIAK

### Kontzentrazioa

Dispertsioa stop, presoak etxera! Lemapean kontzentrazioa deitu dute gaur, 20:00etan, Zinkoenean. ■

## ■ HAIDA TABERNA

### 'Eztanda', gaur

Haidako Banda Lehiaketaren barruan, *Eztanda* taldeak hartuko du parte gaur, 23:00etatik aurrera. ■

## ■ BODEGA TABERNA

### 'Su zelaia' aurkezpena

Mikel Peruarenak *Su zelaia* liburua aurkeztuko du gaur, 20:00etan, Bodegan. Aurkeztu, eta atal bat irakurriko du. ■

## ■ KIROL SARIA

# «Lotsagarria da pelotak Euskal Selekziorik ez izatea, Euskal Herriko kirola izanda»

Kirol Sariak banatuko dituzte gaur Biterin, 19:00etan. Kirol elkarteek eta banakakoek erabaki dute, zeinek merezi duen saria. Emakumezko eta gizonezko batek izan dituzten lorpenengatik jasoko dute; beste batek, ibilbideagatik. Hasieran bi hizlari Euskal Selekzioaren inguruan ariko dira. Bertan izango dira Iñaki Laskurain Euskadiko Errugbi Federazioko kidea, eta Patxi Jauregi Euskal Pilota Federaziokoa. Azken honekin bildu gara.

**Euskal Pilota Federazioak proiektu bat du eskuartean, Euskal Herriko Selekzioaren ofizialtasunarekin zerikusi zuzena duena.**

**Azaltzerik bai?**

Azken urteetan gabezia handia egon da pelotan, Euskal selekzioaren kontua dela eta. Duela urte eta erdi Euskadiko Pilota Federazioko lehendakari-ritza hartu genuenean argi genukan zerbait egin behar genuela. Pelota, Euskal Herriaren sortutako kirola da eta Nazioartean lehiatzeko aukerarik ez izatea lotsagarria da. Guzti horregatik, Nazioartean selekzio gisa lehiatzeko bidea egiten ari gara. Harremanetan gaude Nazioarteko Federakuntzarekin, Munduko Txapelketetan etab, Euskal Selekzio gisa parte hartzeko.

**Zein da egoera?**

Nahasmen handia dago. Alde batetik legea dago; eta bestetik, interesak. Sokatirak lortu du Nazioartean lehiatzeko, besteak beste, Espainiak selekziorik ez duelako; eta batez ere, oihartzun haundirik ez duen kirola delako. Futbola, adibidez, beste muturrean dago, gizartean duen eragina medio. Euskal Selekzioak Munduko futbol txapelketa jokatu balu, askorentzat independentziaren pare legoke. Hala ere, sokatira berdina da batean edo bestean, legea berdina baita. Borondatean eta interesetan dago ezber-



Patxi Jauregi, Euskal Pilota Federazioko lehendakaria.

«Sokatirak lortu du nazioartean lehiatzeko, besteak beste, Espainiak selekziorik ez duelako, eta oihartzun haundirik gabeko kirola delako»

dintasuna, Nazioarteko Federazioak elkarrekin pribatuak dira, eta elkarrekin pribatuetan sartzeko eta irteteko aukera zuzendaritzek ematen dute. Azken hilabetetako gure lana izan da Nazioarteko Federaziolari eta Pelotari oro har esatea, Euskal Selekzioa ofiziala izatea komeni dela. Hori argudiatu dugu, eta txostenetan aurkeztu dugu.

**Beraz, saiakera bat baino gehiago egin dituzue.**

Bai. Pelotaren kasuan saiakera bat baino gehiago egin ziren Nazioarteko Federaziorekin, duela 14 eta 8 urte; antzuak izan ziren biak. Gerora, duela 8 urte, Eusko Jaurlaritzak sortu zuen Munduko Pilota Batzarra, *Nazioarteko Federazio* moduko bat. Tamalez honek ere ez du aurrera egin.

**Eman diren pausu horiek kontuan izanda, itxaropentsua al da etorkizuna?**

Euskal selekzioaren gaia, Nazioarteko Federazioaren mahaian jartzea lortu dugu, eta liskarrik gabe gainera. Harremanak onak dira eta epe ertainean Euskal Selekzioak parte hartzeko aukera izango

duela uste dut. Gabonetako jaialdiak dira horren adierazle, Nazioarteko Federazioak begi onez ikusi ditu jaialdi hauek.

**Euskal Selekzioaren ofizialtasunak zer emango lioke Euskal Herriari?**

Aitortza, eta horren beldur dira Espainiako Federazioak, eta atzetik politikariak. Euskal Selekzioa ofiziala balitz, herri bat badela onartuko litzateke eta hori ez dute onartu nahi.

**Hernanin jokatu da Gabonetako jaialdiaren partiduetako bat. Zeintzuk dira helburuak?**

Pilotako selekzioa mapan kokatu nah dugu. Jaialdi hauek, ofizialtasunaren bideko lehen urratsak izatea da helburua. ■

DAZZ HERNANI OINETAKOAK  
EGUBERRI ON ETA 2015 ZORIONTSUA OPA DIZUE GUZTIOI

DAZZ SHOES

KALE NAGUSIA, 5. HERNANI TEL: 943 90 51 24

on bit

KONPONKETA ZERBITZUA

Smartphone, Tablet...  
Lehen markak soilik!

Mugikorrek liberatzen dira

Agustindarren plaza, 2  
943 33 32 79 • HERNANI

GABON HALETAN  
OPARITU EDERTASUNA  
ETA ONGIZATEA

ETORRI GURE TRATAMENDUAK EGAGUTZERA

nibiru

UNIBER EKOLOGIKETA ZENTROA

AUTOMAKILAJE IKASTAROA : INEUA TRATAMENDUA  
MAMIKURA-PROKURA : MIKROZOMENTAZIOA  
MASAJEAK : SPA TRATAMENDUA  
POTODEPLAZIOA

Herriko 7 30120 Hernani Gipuzkoa

T: 943 24 35 60  
M: 649 581 538  
E: info@nibiruedergintza.com  
www.nibiruedergintza.com

TXANTXILLA  
salgai

Garaje itxiak  
21 m<sup>2</sup>

Idemazko  
943 42 95 21

LEZ, TXANTXILLA  
BERRIA 2012

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622  
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103  
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Castilla Urbietan 7 943 552941 • Gauez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

**EGURALDIA**  
**GAUR** Goizean goiz eta egunaren bukeran zerua lainotuta egongo den arren, eguzkia ikusiko da egunaren partetik haundienean.  
 Min.6°/Max.14°

**BIHAR** Fronte hotz batek lainoak eta euria ekarriko ditu. Egun triste eta iluna espero da. Tenperatura zertxoabit jaitsiko da.  
 Min.7°/Max.13°

## SAHARAREN ALDEKO EUSKAL KARABANA

# Janaria bilduko dute gaur eta bihar, supermerkatuetan

Herriko supermerkatuetan egongo dira kanpamenduetan gehien behar dituzten produktuak biltzen. Biterin urtarilaren 9ra arte dago aukera.

SAHARAKO errefuxiatu kanpamenduetarako janaria bilduko dute gaur. Sahararen aldeko Euskal Karabana jarri du martxan ekimena, eta orain arte Eskoletan eta Biterin aritu dira biltzen.

Herritarrek janaria emate-

ko aukera bertatik bertara izan dezaten, gaur eta bihar Hernaniko supermerkatuetan bilduko dute. Horrez gain, Biterin ere biltzen segiko dute urtarilaren 9ra arte; kaxak daude bertan, produktuak uzteko.

Zehaztu dituzte zeintzuk diren kanpamenduetan gehien behar dituzten produktuak, eta eskatu dute, ahal den neurrian, horiek emateko: konpresak, arroza, lentejak, pasta, olioak, azukrea, eta atuna edo sardinak oliotan. ||

## IRAGARKI MERKEAK

Alokatzeko 3 gelako etxebizitza beharra daukagu. Deitu: 618 120 340

Sukaldaria behar dugu jatetxe batean, espezialitatekin. Urtarrilean hasteko.

Deitu: 600 668 957

15 m2ko garaje itxia salgai Mañe y Flaquer 4

zenbakian. Kotxea eta motorra sartzeko nahiko leku dago. 22.000 € negoziagarriak.

Deitu: 638 784 065 (Carol)

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna.

Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

## PUBLIARGAZKIA

## TXOKO KAFE - BAR



TXOKO kafe-bar irekiko dute gaur Ibai Perez Garmendia eta Mila Garmendia ama-eme hernaniarrek. Goitik behera aldatu dute lehengo Txoko taberna zena eta gosari berezi eta pintxoak eskainiko dituzte. Irekiera ekitaldia 19:00etatik 21:00etara izango da eta animatzeko dei egiten diete herritarrei.

**TXOKO kafe-bar, Andre kalea 68**  
 (Kardaberaz kalea, Zinkoenea parean)

## Eskelak

Eskelak itunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskola jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

### INAXIO BARRENETXEA AGERREZABALAGA

Atzo hil zen, 71 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta  
 - Goian Bego -

Emaztea: Pepi Artola; seme-alabak: Koro eta Gaizka, Kristina eta Jon, Xabier eta Kistifne, Igor eta Ixone, Iñigo eta Ixiar, Nagore eta Dani; bere izeba Juanita; anai-arrebak: Pedro Juan eta Maite, Asenxio eta Koro, Manoli eta Juan Carlos, Margari eta Joaquin, Joxe Mari eta Karnele; ezkon anai-arrebak: Alberto eta Juani, Patxi, Bautista (†) eta Inaxi, eta Manuel (†); bilobak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko abenduaren 19an

Helbidea: Oialume Txiki etxea - Martindegi auzoa  
 OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.



### INAXIO BARRENETXEA AGERREZABALAGA

*Ixil-ixilik jun zea osaba...  
 Ia hitzik gabe utzi gattuzu.  
 Lasaitasun haundiyenian  
 egon zaitezela...  
 Pakian...*



*Zure ilobek hala desio dizugu.  
 Besarkada bat eta indarra familiari.*

Hernanin, 2014ko abenduaren 19an

### INAXIO BARRENETXEA AGERREZABALAGA

*Besarkada handi bat gure lankide Nagore eta familiari.*



**GARIN HERRIKO TABERNA**

Hernanin, 2014ko abenduaren 19an

### INAXIO BARRENETXEA AGERREZABALAGA

- Goian Bego -

*Oialumen sortu, jai, hezi, bizi.  
 Nahiz gure artekk urrutira joan  
 beti izango zera gurekin  
 hemen erreka ondoan.*



**IZEBA JOANITA, ANAI-ARREBAK  
 ETA KOINATU KOINATAK**

Hernanin, 2014ko abenduaren 19an

### INAXIO BARRENETXEA AGERREZABALAGA

*Zure Garineko lankide eta lagunek indarrez eta berotasunez beteriko besarkada handi bat eskaini nahi dizuegu, gure babesa senti dezazuen.*



**GARINEKO LAGUNAK**

Hernanin, 2014ko abenduaren 19an

### INAXIO BARRENETXEA AGERREZABALAGA

- Goian Bego -

*Muxu bat aitona Inaxio*

**ZURE BILOBAK: ENAITZ, AXEL,  
 AINITZE, IHINTZ, EKINE, MALEN,  
 ANER, EKHI ETA ENARA**



Hernanin, 2014ko abenduaren 19an

### IÑAXIO BARRENETXEA AGERREZABALAGA

"Osaba Iñaxio Oialumekoa"

*"Nik ez nai eguna biurtzerik gau"- Lizardi*

*Eskuzabaltasunean, haundi eta sendo.  
 Ekinean, indarra eta argia.  
 Umorea eta aldarte ona zurekin.*

*Horrelaxe gogoratuko zaitugu osaba. Izan ondo.*



**ALTZUSTAKO FAMILIA**

Hernanin, 2014ko abenduaren 19an

### INAXIO BARRENETXEA AGERREZABALAGA

*Gure babes eta goxotasuna  
 helarazi nahi dizuegu  
 momentu gogor honetan.*



**NAGOREREN LAGUNAK**

Hernanin, 2014ko abenduaren 19an